

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA



JUSTIFICAZIOA

Gero eta digitalizatuago dagoen garai batean bizi gara, eta ikastetxeak errealitate berri horri erantzuna eman behar dio eta moldaketak egin behar ditu, gizartetik eta baita lan merkatutik datozen eskaerei konponbideak emateko. Hori dela eta, gure ikasleak prestatu behar ditugu, aldaketa hauei aurre egiten jakin dezaten eta gizartearen partaide aktibo bilakatu daitezen.

Bilboko HHI ikastegian badaramatzagu urte batzuk IKTen erabilera sustatzen, bai ikasleen eta baita irakasleen artean. Hala ere, badakigu oraindik bide luzea daukagula aurretik eta norabide horri begiraturaz, uste dugu oso lagungarria izango dela Ikastetxeko Proiektu Digitala garatzea. Ikastetxearen Proiektu Digitala baliabide digitalak ezagutzeko eta hauen erabilera bultzatzeko tresna da, eta aukera ezin hobea ikastetxearen egoera zein den jakiteko eta ikusitakoaren inguruan hausnartzeko, beti ere, hobetze aldera.

Hezkuntza komunitate osoak partekatzen duen proiektua izango da honako hau, eta baliagarria izango da guztien beharrak antzemateko eta teknologia berrien erabilera zabaltzeko.

Ikastetxeko Proiektu Digitalak honako ekarpen hauek egingo dizkigu:

- Gaur egun ikastetxea zein egoeratan dagoen ulertzen lagunduko digu, hau da, IKTen inguruan ikastetxearen egoera aztertu eta bertatik ondorioak ateratzeko.
- Irakasle bakoitzari IKTen erabilera maila zein den jakiten irakatsiko dio.
- Ikasleen konpetentzia digitalari bultzada bat emateko balioko du.
- Hasieran egindako analisiak helburu berriak finkatzen lagunduko digu.
- Helburu horiek betetzeko hartu beharreko erabakiak eta egin beharreko ekintzak zeintzuk izango diren zehazten lagunduko digu.

Laburbilduz, IKTen erabileraren inguruan autoebaluazio bat egiteko balioko digu, eta etorkizunera begira hartu beharreko erabakiak zeintzuk izango diren zehazten lagunduko digu.

HELBURUAK

1. Ikastetxeko estrategia digitala sotzea.
2. Estrategia digitala ikastetxean hedatzea.
3. Ikastetxeko estrategia digitala onartzea.
4. Irakasleen arteko komunikazio bide berriak ezartzea.
5. Digitalizazio batzordea indartu.
6. Ikasleekin komunikatzeko tresnak erabiltzea.
7. Ikastetxearen formazio plana sortzea.
8. Irakaslegoaren gaitasun digitalaren akreditazioaren bultzatzea.
9. Inguruko agente sozialekin harremanak sustatu.
10. Geletan ditugun ordenagailu, proiektore eta arbel digitalen matxuren kudeaketa automatzea.
11. Gradu III-ko ingurune birtualak sortzea.
12. Gelen erreserba digitalizatu.